

ZINTZOA IZATEKO IPUINA

Olatz Bereziartua Aizpurua

Zestoa

Gipuzkoan bada herri txiki bat, eta bertan behin izatea nahikoa da, bertako “artista” guztiak buruan biraka izateko. Mendiz inguratuta, kostaldetik hurbil, eta garrantzitsuena ez dirudien arren, edonoren bihotzetik gertu. Zein izango ote den? Ba, Iraeta bera! Ez da gauza asko bertan: hamasei base-ri, zortzi alde bakoitzeko, aurrez aurre, zein ederrago edo koloretsuago, elkarrekin apustua jokatzeko ariko balira bezala. Baita “Gure Ordeka Elkartea” ere, jai eguna izanez gero leporaino beteta egon ohi dena, eta nola ez, beste belardi guztien artean eraikia, esperientzia gabe denen gustukoa den gazte harroaren modura, herriko futbol zelaia. Bi metro aurrera egin eta, betiere Urola ibaia zaindari dela, baratze txikiz hornituriko bidea, non naturak irenstea edo begirada hutsez goza daitekeen paisaiak liluratzea oso erraza den.

Bertakoa omen zen Mikel txikia. Munduan ez omen zen hura bezain mutiko alai eta mugiturik, benetan bihurria, begietako dirdira zoragarriarekin. Inork inon ikusi ahal izan duen deabrutxorik

handiena. Argala eta ilehoria, beso eta zangoen ordez, kanaberak zituen. Bihurrikeriak egitea biziki maite zuen, noski. Izugarri ondo pasatzen zuen guztiei adar joka, denak ernegatu arte. Ez zirudien arren, etxean zein ikastolan zuzentzen saiatzen ziren. Ez zen, hala ere, auto hura geldiaraziko zuen balaztarik. Gurasoek ezin mutiko harekin! Ama bere onetik ateratzen zuen, eta aitak berriz, bere kezka izan arren, “Bost urteko haur bat besterik ez da...” esanez “konpontzen” zuen kontua.

Iritsi zen, ordea, bihurrikeria horien amaiera. Asteburu arrunta zen eta, beste asteburu guztietako legez, aitona-amonen etxera joan ziren bazkaltzera. Honela, Mikelek aitaren jaiotetxeko atea ireki orduko, han ikusi zuen aitona Euxebio, sutondoan, hamaiketakoa egiten. Mutikoak, ohartu bezain laster, korri egin zuen aitonarengana, haren besoetan bere burua erortzen utzi zuen arte, eta une eder hari amaiera emateko musu potolo bat eman zion “MUA”. Izugarri maite zuen Mikelek aitona Euxebio, berak zioen modura, hura baitzen beti errietan jarduten ez zitzaion bakarra, eta baita bere aldrebeskeria guztietan, pintxea sukaldariak lagun izaten duen modura, laguntzaile izaten zuena. Ikusi besterik ez zen, aitona bilobaren ondoan, benetan nola umetzen zen. Hain zen bitxia zein ikusgarria hura horrela ikustea. Itzela benetan!

Mikelen ama bera ere konturatua zen horretaz, eta bazekien semeak aitonak esandako guztia egiteko aitzakiarik ez zuela ere. Eta horrela, behin, bazkaltzen ari zirela, semearen gaitzakeriak buka-

tutzat emango zituen ideia izan zuen. Makurtu eta honela esan zion semeari:

–Mikel, esaiozu aitonari “Anttoni Bruja”ren istorioa kontatzeko.

–Aitona, kontadazu “Antxon Burbuja”ren istorioa! Kontatu!– esan zion honek, bitan pentsatu barik.

Aitonari irribarre eder bat irten zitzaion bi masailen artetik, bilobaren aldrebeskeriari erreparatzean, eta txantxa antzean esan zion:

–Hik ez al dakik bada, “Anttoni Bruja”ren istorioa? Horrek ezin dik horrela jarraitu!–. Orduan, ipuin kontalari baten tonura egokitu eta ipuina kontatzeari ekin zion...

–Ba omen zen Euskal Herriko herri txikiren batean, hemendik ez oso urrun, emakume bat Aizkorriko haitzak baino gogorragoa zena. Haren ipurdia ba omen zen Azpeititik Tolosara bitartekoa. Eta sudurra, ai ene, haren sudurra! Ba omen zen Arantzazuko kanpandorra bestekoa. Askotan soineko beltz batekin ibiltzen omen zen, lehenengo aldiz noiz jantzi zuen inork oroitzen ez zuena.

Piura horrekin jendeak zer pentsatuko ba?, ba “bruja” ederra zela, eta kaleetan ezizen hartaz eza-gutua izan zen, “Anttoni Bruja”. Denek izu benetakoak zioten hari. Emakume askok, azokara erosketak egitera joan eta, hura ikustean, bira erdia eman, eta etxerako bidea hartzen omen zuten, tximistak baino bizkorrago, beldurraren beldurrez.

Baina ez ziren denak haren beldur. Herriko mutiko gazte eta ezjakinak, gurasoei zer egitera

zihoazen esan gabe, hura xaxatzera joaten ziren, arratsaldero-arratsaldero. Han ibiltzen ziren haren inguruan, beti baserri bueltan, hura zirikatzen, Anttoni, betiko soinekoarekin eta eskopeta eskuan hartuta, noiz etxe zulotik irtengo zain. Nazkatzen zenean, bi tiro botatzen zituen, eta denak aztoratu ondoren, berriro etxera itzultzen zen. Hura amorratuta ikustean, gustura jartzen ziren haur haiek, algaraka.

Herritarrek ordea, bi tiro haiek bakarrik entzunda, emakume hura guztiz erotuta zegoela uste zuten, eta beldur ziren, egunen batean herrian azaldu eta denei tiroka hasiko ote zitzaien. Horregatik ezkutatu ohi ziren herritar guztiak, hura kalean behera ikusten zutenean.

Baina txanponak ere bi alde dituen legez, haurrak ere baziren herri hartan, harekin batere beldurtzen ez zirenak. Anttonik, baserrietako mutil edo gizon harroek eta haur ezjakinek esaniko esaldi guztiak jada buruz ikasiak zituen. “Bruja bat haiz, Anttoni. Bruja galanta, bai horixe!” zen behin eta berriz entzuteaz nazkatuta zegoen esaldia. Berau ere ez omen zion, eta isilik uzten omen zuen txorakeriak esaten hasten zitzaion oro. Benetan emakume ausarta, eta zinez petrala!

Baina egun batean nazkatu egin zen, txorakeria haiek guztiak entzutearekin, eta ezer galtzekorik ez zuela ikusita, ondorengo hau pentsatu omen zuen: “Ni Mendebalde Urrunera joango naun, han egongo ditun eta, ni bezain aldrebesak, segur aski. Eta adarra joka hasten zaidanari, PIN! PAN! Eta kitto.

Gainera, han jende gogorra zagon eta denak ibiltzen omen ditun pare bat pistolarekin”.

Abiatu omen zen bada, Anttoni Mendebaldera, baina mutil koskorak, arratsaldero bezala, inguratu ziren baserrira, hura zirikatzeako asmotan. Han ordu-rako ez zen, ordea, haiei jolasa jarraituko zienik, ezta eskopeta bat hartuta haiek uxatzera irtengo zenik ere... Beraz, herri osora zabaldu zen “Anttoni Bruja” falta zela. Egunetan ibili zen berri hura, batzuentzat on, besteentzat triste, guztien ahotan.

Eta halaxe, pasa ziren urteak eta urteak, eta harrigarriena, emakume hura falta! Sorgin haren arrastorik ez! Beraz, herrian lasaitasuna zabaldu zen. Jendea lasai joaten zen azokara, eta haren erantzun petralak entzun beharrik ez zuen jendea ere bake ederrean bizi zen. Bere hutsunea nabaritu zuten bakarrak mutiko bihurri haiek izan ziren, baina haiek ere, urteen poderioz, ahaztu zuten atso hura.

Baina gau batean, ilargi betea iluntasunaren zaindari zela, hiru tirok, hiruk, ez bat gehiagok, ez bat gutxiagok, hautsi zuten neguko ilunpe eder hartako isiltasuna. Denek, beldurtuta, beren etxeetatik irten eta solasaldiari ekin zioten. Bat-batean, emakume bat, izuak gorputza hartuta, garrasika hurbildu zitzairen, bere semea falta zela esanez. Denak elkartuta, saiatu omen ziren inguruko baso eta zelaietan haren semea biltzen, baina inork ez omen zuen haren arrastorik aurkitu.

Lau gautan jarraian gertatu zen hori, lau gau, ez bat gehiago, ez bat gutxiago, eta denak ilargi bete-

aren begiradapean. Horrela, hura xaxatzen saiatu ziren lau mutiko haiek, jadanik nahiko helduak zirenak, desagertu egin omen ziren. Batzuek esaten dute, Mendebaldera eramán zituela berekin, beraien moduko jendearekin elkartzera. Beste batzuek berriz, infernura bidali zituela. Eta ba omen dira basati batzuk, salda egiteko erabili zituela diotenak, eta egunero gosaltzeko salda edaten duenez, salda ez agortzeko beti haur gaiztoen bila dabilela esaten dutenak. Horrela lortzen omen du bere egarria asetzea.

Kontuak kontu, eta istorioak istorio, oraindik inork ez omen daki zer egin zuen edo zer egiten duen ume gaiztoekin... Eta “Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila gure herriko plazan!”

Amaitu zuen aitona Euxebiok kontakizuna, bi plater begira zeuzkalarik. Hura zen, hura Mikelen harridura! Eta bat-batean, “Zer bihurrikeria egin beharko nuke Anttonik berekin eramateko?” entzun zuten, ahoa bete hortz.